



**2008KO AZAROAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko azaroaren hamabian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte eta Iñaki Saldaña Herrero.

Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak esaten du eguneko gai zerrenda bidali ondoren obra egiaztegi batzuk sartu gabe gelditu zirela konturatu zela eta presazko izaeraz hauek sartzea proposatzen du. Proposamena ontzat ematen dute bertaratutako guztiek.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko urriaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHAZPI euro eta LAUROGEITA HAMABI zentimo (378.817,92 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- SAN PRUDENTZIO ESKOLA ERAIKINAREN AURREKALDEKO URBANIZAZIO LANEN LEHEN ETA 2. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

San Prudentzio Eskola eraikinaren aurrekaldeko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak lanen lehen eta 2. obra egiaztagiriak aurkeztu ditu. Lehenengo obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BAT MILA BOSTEHUN ETA HOGETA SEI EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMOtakoa (101.526,68 €) da eta bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA HOGETA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOtakoa (90.235,50 €) da. Lan hauek Orsa, S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako guztien adostasunarekin, obra egiaztagiri hauek onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN EKIPAMENDU ESZENIKOAREN 6. OBRA EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-

...///...

Areria eraikineko ekipamendu eszenikoaren lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak, lan hauen seigarren egiaztagiria luzatu du. Seigarren eta lanen azkenekoa den obra egiaztagiri honen zenbatekoa HEMEZORTZI MILA SEIEHUN ETA BERROGEI euro eta HAMALAU zentimotakoa (18.640,14 €) da. Lan hauek Chemtrol Division Teatro, S.A. enpresak burutu ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta guztien adostasunarekin, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

V.- LEGEGINTZALDI PLANAREN JARRAIPENA.-

Jarraian Alkateak legegintzaldi planaren egikaritzea nola dihoanaren berri ematen du.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

VI.- EUSKARA ESKOLETARA JOATEGATIKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartzen du: 2007-2008 ikasturtean euskara eskoletara joan diren herritarrei dirulaguntza ematea, horretarako dauden arauak jarraiki. Guztira 18 lagun dira proposamen orriari erantsitako orrietan ikus daitekeen modura eta guztira 3.417,86 € emango zaizkie. Langabezia daudenei matrikula kostuaren %60 eta gainontzekoei matrikula kostuaren herena.

VII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

2008ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udal kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	7.799,00 €
Pelota taldea	1.796,00 €
Igeriketa taldea	595,00 €
Areto futbol gizonezkoena	1.084,00 €
Atletismo taldea	955,00 €
Mendi taldea	981,00 €
Txirrindulari elkarteak	465,00 €
GUZTIRA	13.675,00 €

Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteak, Kirol Astearen barruan egindako antaolakuntza lanarengatik, udal kirol batzordeak hiruehun (300 €) euroko dirulaguntza ematea proposatzen du. Proposamen honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, proposatutako dirulaguntza ematea erabakitzen du.



...///...

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



